



**Ostiral honetan
bertsio-kontzertu
berezia, Sareren eskutik**

**Herri plataforma:
“Gaurkoan Maria Angeles
izan da baina bihar beste
edozein izan daiteke”**



**Euskararen erabilera
%54tik %62,8ra igo da
Usurbilen**



SAN SILVESTRE HERRI LASTERKETA

Abenduak 31, 17:00 - Usurbil
Irteera: frontoian

Izen-ematea:
Online www.gertuago.eus-en

Abenduaren 31ean 16:00-16:30
frontoian

Parte hartzaile guztien artean
sariak zozketatuko dira
Hurbilagoren eskutik.

Sari berezia
mozorrorik onenari!

Antolatzailea

hurbilag
USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA

Laguntzaileak



Euskadi, nazionala, bien común

ELKANO JAURLABITZA GOBIERNO VASCO

Albisteak iruditan

Garaipen eta domina festa

Usurbil Judo Kluba alebiren Gipuzkoako taldekako txapelketan nagusitu da. Hondarribiako Jos-taldi pilotalekuan parte hartu zuten 16 taldeen artean nagusitu ziren Aiur Be-laustegi (-31 kg), Arnau Ruiz (-34 kg), Anetz Larrarte (-38 kg), Eñaut Agirreurreta (-41 kg), Beñat Algorta (-47 kg), Peru Arrizabalaga (-52 kg) eta Inar Arri-llaga (+52 kg). Jarraian, "8 taldek hartu zuten parte" eta hor ere Usurbil nagusitu zen, judo klubetik aditzera eman dute-nez. "Legazpiren aurka 3 eta 2" irabazi zuten Eneko Rodriguezek (-46 kg), Danel Urrozek (-50 kg), Adei Salcedok (-60kg), Aner Altunak (+60 kg). Emaitza hauez gain, domina askoz gehiago irabazi dituzte. "Gipuzkoan 23 domina eta Espainiako txapelketetan 15 domina lortu ditugu. Zorionak denei", adierazi diete judo klubetik.



"Gipuzkoan 23 domina eta Espainiako txapelketetan 15 domina lortu ditugu. Zorionak denei", adierazi digute judo klubetik.

Laburrean

Hurrengo aldizkaria, urtarrilaren 5ean

Eskuartean duzue urteko azken aldizkaria, gabonetako gehigarriarekin eta urte berrirako egutegiarekin. 2023ko lehen zenbakia urtarrilaren 5ean plazaratuko dugu. Oharrak urtarrilaren 2a baino lehen helarazi erredakzioa@noaua.eus edo deitu hona: 943 360 321.

Gaztelekutik Txuri Urdinera

Abenduaren 26an eta 29an irteera bana antolatu dute Gaztelekutik Donostiako Txuri Urdinera, 16:00-21:00 artean. Txango hauetarako guraso baimenak aurrez Gaztelekuan jaso behar dira. Informazio gehiago ere bertan jaso daiteke: gaztelekua@usurbil.eus / 943 371 050.

Andatzpe elkarteko bazkide egiteko aukera

Andatzpe elkartea Usurbilgo Kale Nagusian dago. Bazkide egiteko aukera zabaldu berri dute. Baldintza bakarra, 18 urtetik gorakoa izatea.

Informazio gehiago:

669 20 58 96 (Aitor).

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Luis Aranalde

Txartel gorria Qatarri

Bi kirol praktikatu ditut nagusiki nire bizitzan: pilota eta futbola. Orain, ez bata ez bestea. Egun, ibiltzea aholkatu didate fisioterapeutek. 15-20 mila pauso ematen ditut egunero eta oso ondo doakit. Eta Qatarreko Futbol Txapelketari mundu guztia begira dagoen honetan, gogoetatxo bat egin nahi nuke kirol gertaera historiko honi buruz.

Qatar lurralde txikia da: 2.300.000 biztanle ditu, petrolio produktore handia. Eta nazioarteko komunitateak oso ondo daki Qatarreko gobernuari asko falta zaiola demokrazia bat izateko. Eta batez ere hiru arlotan ditu akats nagusienak: LGTBI kolektiboaren kontrako erasoak, etorkinei ematen dien tratu negargarria eta, oro har, emakumeen eskubideen urraketak.

LGTBI taldearen kontrako errepresioa latza da. Qatarren bizi den komunitate horretako kide gutxi ausartzen dira sexualitatea harrotasunez bizitzera eta adieraztera. Oso ohikoak dira kolektiboaren aurkako abusu fisikoak. Hitz egiteko beldur handia dute. "Oso gaztetatik jakin nuen homosexuala nintzela, baina nire adiskide minari bakarrik esan nion. Gure arteko sekre-



"Nik txartel gorria ateratzen diot Mundialaren anfitrioiari".

LUIS ARANALDE

"Munduak, berriro ere, ez ikusiarena egin du. Behar bada hori baita kirol praktikatuena askotan: ez ikusiarena egitea"

tua zen", Mohamedek.

EMAKUMEAK gizonen esku daude. Gizonen tutoretza sistemak zeharo mugatzen du emakumezkoen bizitza. Gizon baten baimena behar dute ezkontzeko, atzerrian ikasteko, gobernuko zenbait lanpostutan lan egiteko. Atzerrira bidaiatzeko ere gizona baten baimena behar dute 25 urtetik beherako emakume ezkongabeek.

MIGRATZAILEEN egoera negargarria da. Futbol zelaiak eta azpiegiturak eraikitzeko

lanak hasi zituztenez geroztik, 6.500 atzerritar hil dira. Langile gehienak India, Pakistan eta Bangladeshekoak ziren. Langile arduradunek esaten omen zieten: "hik ahoa itxi eta segi lanean hemen jarraitu nahi baduk". Sindikatuak debekatuta daude Qatarren. Mundialaren antolatzaile izendatu zuten geroztik, bestaldera begiratze-ko esan zaie kazetariei.

Jakina, ez da lehenengo aldia Munduko Futbol Txapelketa giza eskubideak zapaltzen dituzten nazioetan jokatzeko dela, hots, Argentinan 1978an. Videla diktadoreak deitu zien horiei "bakearen Mundiala". Edo Berlinen ospatu ziren Joko Olinpikoak 1936an. Dena esan behar bada, Qatar ez da horien mailakoa giza eskubideen mespretxuan, ari da poliki-poliki irekitzen gizarte demokratiko-

rantz. Marketin hutsa ote da, ala bada mentalitate aldaketaren bat? Halere, nik txartel gorria ateratzen diot Mundialaren anfitrioiari.

Esan dezagun, baita ere, dena ez dela ezkorra izan. Ekimen apartak ere burutu dituzte zenbait jokalarik, adibidez, Irango ekipoko futbolariak uko egin zioten beren nazioko himnoa kantatzeari; sei zazpi bat ekipok LGTBIren eskubideak defendatzeko besokoak jarri zituzten, nahiz eta gero kendu zigorraren beldurrez. Lehenbiziko aldiz Mundialetan emakume bategarri bat arbitratu du futbol partida bat, Stephanie Frappart frantsesak. "Zalantzarik gabe, hesi batzuk hausten hasi gara, ispilu horretan begiratu behar gara; normaltasunerantz pausu handi bat da", dio epaile lanetan ibiltzen den Nerea Reyk.

Kazetari batek dio: "ikusi ditugu egunkarietako azalak odolez ziprztindutako baloiekin eta irakurri ditugu giza eskubideen urraketak salatzen dituzten editorialak eta erreportajeak, baina salaketa eta boikot pertsonaletatik haratago, beste ezer gutxi". Munduak, berriro ere, ez ikusiarena egin du nik uste. Behar bada hori baita kirol praktikatuena askotan: ez ikusiarena egitea.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



Hirigintza, zaintza ekosistema berriaren eraikuntzan

Hirigintza izan zuten hizpide aurreko astean zaintzari buruz Po-txoenean egindako hitzaldian. Hiru arkitekto gidatu zuten saioa orain arte egindako lanak aztertu eta zaintza lanak errazteko hirigintza planak proposatuta. Col·lectiu Punt 6 kooperatibako kide bat, Oihane Ruiz arkitektoa eta Nora Erdoiza Usurbilgo Udaleko arkitektoa izan ziren hizlariak.

Zaintza ekosistema berriaren eraikuntzan, ezinbestekoa da zaintza lanak aitortzea eta Usurbilgo agendaren erdigunean kokatzea. Horregatik, azaroan hasita, hilabetero zaintzari buruzko hitzaldiak egitea erabaki zuen Udalak. Abenduaren 15ean, bigarren saioan, hirigintzaren ikuspegitik aztertu zuten zaintza.



Abenduaren 15ean hirigintzaren ikuspegitik aztertu zuten zaintza.

Feminismotik

Herriak, hiriak eta orokorrean, espazio publikoak diseinatzerakoan, zaintza behar duten pertsonak eta zaintzaileak kontuan izatea ezinbestekotzat dute hizlariak gizartean dauden berdintasun sozial falta

hori txikitzen joateko. Feminismotik eginiko irakurketak ere proposatu zituzten hirigintza planetan txertatu ahal izateko. Izan ere, bai tradizionalki eta baita egun ere, zaintza lanetaz emakumeak arduratzen dira nagusiki eta ia bete-betean.



Bi greba egun Aginagan eta Zubietako eskoletan

Hezkuntza legearen aurreproiektuaren zirriborroaren aurka LAB, ELA eta STEILAS sindikatuek hezkuntza publikoan deitutako asteotako bi greba egunekin bat egin dute Aginagako eta Zubietako eskolek. Publikoa ardatz izango duen hezkuntza legea aldarrikatu dute.

Zuriñe Lasarte eta Amaia Olasagasti, bertso-porrako irabazleak

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren bueltan bertso-porra bat jarri genuen martxan. Ostiraletik larunbatera bitarte ia 100 lagunek eman zuten bozka. Partehartzea hain handia izanik, bat ez, bi lagun saritzea erabaki genuen. Maialen Lujanbio txapeldunaren alde 34 herritar agertu ziren. Eta horien artean egin genuen zozketan, hauexek izan ziren irabazleak: Zuriñe Lasarte eta Amaia Olasagasti. Zorionak!



100 bat lagunek osatu zuen bertso-porra.

Urtea agurtzeko, Herri Topaketak

Usurbilgo Ernaik, Sortuk eta Aitzaga elkarteak antolaturiko ekitaldi zikloa asteotan.

Abenduak 27, asteartea

- Ernai eta Ikamaren topaketa:
- 11:30 “Hezkuntza eta osasun mentala” mahaingurua Gazte Lokalean.
 - 16:30 “Sexualitatea deseraitzen” tailerra Gazte lokalean.
 - 18:30 Poteo olinpiadak Aitzagatik.
 - 21:00 Afaria Aitzagan.

Abenduak 28, asteazkena

- 18:00 Mahaingurua Sutegin: “Ingurumena, ekologismoa eta energia. Zein eredu nahi dugu Usurbilen?”.
- Hizlariak: Mikel Otero, Alazne Arruti eta herri mugimenduko kide bat.



Mahainguruak, tailerrak eta bestelako ekitaldiak iragarri dituzte.

Abenduak 29, osteguna

- 19:00 “Bi arnas” proiektuaren aurkezpena eta dokumentalaren proiektzioa Sutegin.

Abenduak 30, ostirala

- 19:00 “Egia bide, askatasuna amets” ekitaldia frontoian.

Abenduak 31, larunbata

- 20:00 Preso, iheslari eta de-

portatuen aldeko topa berezia Dema plazan.

Urtarrilak 7, larunbata

- 17:00 “Etxera bidea gertu” Sareren manifestazioa Bilboko La Casillatik. Autobus zerbitzua Usurbildik.

Antolatzaileak: Ernai, Aitzaga elkarte eta Usurbilgo Sortu.

Usurbilgo Sare: “Euskal kantutegitik abestiak aukeratu eta bertasio modura eskainiko dituzte”

Usurbilgo Sarek kantu saio bat antolatu du abenduaren 23rako. Arratsaldeko 20:00etan Sutegin hainbat taldek oholtza hartuko dute presoen inguruan euskal kantagintza oparoaren abesti batzuk bertsiatu eta plazaratuta. Sarrerak alde aurretik erosi beharko dira Txiribogan, Aitzagan eta Txirristran 6 eurotan edo egunean bertan 8 eurotan. Ekimen honen antolatzaileekin izan da NOAUA!

NOAUA! “Kantuz etxera bidea gertu” izenpean kantu saioa antolatu duzue. Nolatan bururatu zaizue ekitaldi hau antolatzea?

Aitor Landaluze: Sarek badu bere dinamika propioa. Hilabeteko azken ostiralarekin elkarretaratzeak egiten ditugu. Presoen gaia bizirik mantentzea dugu helburu eta salaketa egiteaz gain, informazio sare ere bilakatu da. Presoen egoeren gainean gertatzen diren aldaketen berri ematen dugu. Egia da Usurbilen ez dela presorik geratzen gartzeletan, baina Euskal Herrian oraindik ia 200 pertsonak jarraitzen dute preso izaten. Hilabetero egiten



Usurbilgo Sarek kantaldi bat antolatu du. Abenduaren 23an ostirala, 20:00etan Sutegin. Sarrerak alde aurretik eskura daitezke Txiribogan, Aitzagan eta Txirristran, 6 eurotan. Egunean bertan 8 eurotan, Sutegin.

USURBILGO SARE

“Abenduaren 23an, herriko musikariek bertasio-kontzertu berezia eskainiko dute Sutegin”

dugun elkarretaratzeaz gain, zerbait gehiago egiteko gogoia geneukan urtea behar bezala amaitzeko eta horren erraz iristen ez garen jende horretara iristeko. Ikusita Usurbilen

musikari eta kantari dezente ditugula eta euskal kantagintzan presoen gaia bizirik dagoela, gure kantariak eta presoen gaiak elkartzea erabaki genuen. Euskal kantutegi zabal horretatik pare bat abesti aukeratu eta bertasio modura abestuko dituzte Sutegin.

Zein taldek hartuko dute parte bertan?

A.L.: Musikariak ikusiko ditugu,

ez horrenbeste herriko taldeak: Ixak, Elene, Malen eta Jon Mikel, Luken... Horiez gain, bertsolari pare bat ere izango dira, bai eta Ugaitz Agirre ere poesia errezitatzen.

Presoen aldeko abesti ezagunak joko dituzte denek?

A.L.: Printzipioz abesti ezagunak izango dira, baina batek edo bestek proposatu digu bere abesti propioen bat ere jotzea, beti ere presoak gaitzak hartuta.

Joxe Mari Lizaso: Ongi etorriak izango dira abesti propioak ere. Gonbita oso zabala izan da eta bakoitzak bere egitea nahi dugu kantaldia. Ez diegu eskatu abestiak sortzerik, baidarik eta dagoenari buelta bat ematea.

Sareren zozketa

“Etxera bidea gertu” dinamikaren testuinguruan, Sarek eginiko zozketako zenbaki sarituak honako hauek dituzte: 66.382 (1. saria: 999 euroko bi bidaia-bono), 45.236 (2. saria: 999 euroko bidaia-bono bat), 40.300 (3. saria: Tolosako Ama jatetxean bi lagunentzako otordua).

“Bilboko manifestaziora joateko autobusa jarriko dugu”

Presoen gaia musika talde askok lantzen dute. Gaur egungo gazteriak nahikoa kontzientzia baduela uste duzue?

A.L.: Euskal kantagintza badirudi gizartearen memoria kolektiboaren bozeramaile bilakatu dela. Gaia presente dago gazteen artean ere, baina ez guk bizi genuen intentsitate berarekin. Dispersioaren gaia amaierara iristen ari da, nahiz eta oraindik 20 bat preso geratzen diren urrutiko gar-

tzeletan. Belaunaldi oso batek hori ez du bizi izan. Gazteek beste modu batera jasoko dute hori eta euren modura bizi eta transmitituko dute. Izan gaitzen azken belaunaldia horrelako egoera bat bizi duena. Oraindik salbuespen-egoera indarrean dago eta presoei zuzenean eragiten die eta errepresio horren aurka borroka egin beharra dago ez bakarrik presoen alde, bai eta haien familia eta lagunuen alde. Horretan ari gara

fokua jartzen Saren, mende-kuaren lege horren aurka borrokan jarraituko dugu.

J.M.L.: Geroz eta zailagoa izango da belaunaldi berriei transmisioa egitea. Argi daukagu gure eguneroko lana ezinbestekoa dela, baina pixkanaka indarra galtzen ari den gaia da modu natural batean.

Urtarrilaren 7an manifestazioa izango da Bilbon, “Etxera bidea gertu” aldarripean. Autobus

zerbitzua izango al da?

J.M.L.: Bai, jakina. Herriko ohiko tabernetan izena emateko aukera izango da eta autobusa jarriko dugu. Kantagintzaren ekitaldian ere oso presente izango dugu deialdi hau eta animatuko ditugu bertan ere Bilbora gurekin etortzera. Inguruko herriekin ere harremanetan egoten gara elkarri laguntzeko.

A.L.: Aste honetan bertan jarriko ditugu zerrendak.

Urrezko Bikain ziurtagiria eskuratu du Udalak

Eusko Jaurlaritzaren euskararen urrezko kalitate ziurtagiria eskuratu du Usurbilgo Udalak. “Esparru sozioekonomikoan euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzen du” urtero 2008. urtetik.

Bikain, Eusko Jaurlaritzak ematen duen Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratu du Usurbilgo Udalak; hiru aitortza-mailetan (oinarrizko, tarteko eta goi maila) maila goreneko ziurtagiri ofiziala. Hala dio: “erakunde honek goi maila egiaztatu du Bikain ereduaren arabera egindako kanpo-ebaluazioan. Ebaluazio honen bitartez euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa neurtzen dira, eta ebaluazioa Bikain Ebaluatzaile Klubeko kideek egiten dute. Ziurtagiri honen bidez, Eusko Jaurlaritzak maila hau lortzeko erakundeak egindako lana



Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratu du Usurbilgo Udalak.

aitortu nahi du eta euskararen erabilera areagotzeko bidean aurrera jarrai dezaten animatu nahi ditu zuzendaritzako kideak eta gainontzeko langileak”.

Ziurtagiria jaso berrikan, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak adierazi duenez, “urte luzeotan udal gobernu ezberdinek eta udal langileek egindako lan eta ahaleginari eta herriaren bultzadari esker izan da posible. Zorionak, Usurbil!”.

Ebaluatzaileak: “Usurbilgo Udala euskara eremuan erreferente da”

Bikain ziurtagiria eman aurretik, “erakundeak ebaluazioa jaso eta gainditu behar du”. Erakundearen irudia, bezeroekiko eta herritarreko harremanak, barne-komunikazioa eta lan-tresnak, pertsonen kudeaketak, kanpo-harremanak eta kudeaketa-sistema behatzen ditu kanpoko aditu talde batek. “Ebaluazio taldea azaroaren 15ean izan zen

udalean, eta behaketa-lanak egiteaz gain, hainbat sailletako arduradun tekniko eta politikorekin bildu ziren”.

Gehienez 1.000 puntu eskura ditzake behatua den erakundeak; Usurbilgo Udalak 900-949 puntu artean jaso ditu, Bikain ziurtagiriaren baitan lor zezakeen aitortza maila altuena. “Ebaluatzaileek honako indarguneak nabarmendu dituzte: Usurbilgo Udalean euskararekin lotutako hizkuntza irizpideak kudeaketa sisteman txertatuta daude, eta zeharkotasunez erakundeko sail ezberdinetan aplikatzen dira; erakundeko langileen euskara gaitasun maila altuak eta hizkuntza irizpideak era natural batean barneratuta izateak sortze-hizkuntza %100ean euskara izatea ahalbidetzen du; inguruko udalen eta gaine-rako erakundeen artean Usurbilgo Udala euskara eremuan erreferente da euskararekiko erakusten duen konpromisoa altua dela eta”.

Lankidetzaren hitzarmena berri dute Buztinzulok eta Udalak

Buztinzulo elkarteak eta Usurbilgo Udalak lau urterako lankidetzaren hitzarmena berri dute. “Hitzarmen horren bidez, udalak Atxegaldeko Alperro Buru kalean (6. zenbakia) duen lokala lagako dio, elkarteak bere jarduna bertan gara dezan, eta 10.000 euroko ekarpena egingo dio 2022an, egitasmoa martxan jarri ahal izateko azpiegitura gastueta-rako. Lokala erabili ahal izateko egokitzapen lanak ere egin ditu, aurrez”.

Elkarteak bere aldetik, “hitzarmenarekin, hainbat be-tebehar hartu ditu bere gain. Besteak beste, zeramika eta buztzingintza ikastaroak antolatzea, gunere ireki eta autogestionatua izateko urratsak bideratzea, herriko kultur eta



Argazkian, Buztinzulo zeramika taldeko eta Usurbilgo Udaleko ordezkariak.

gizarte dinamikarekin uztartzea, herriko beste elkarte eta erakundeekin buztzingintza ezagutu eta zabaltzeko ekintzak bideratzea, herritarrei buztinaren bidez sormena lantzeko baliabideak eskaintzea eta bertan egiten duten lana zabaltzea. Udal beharretara egokitutako piezak ere egingo dituzte (material gastuak udalak bere gain hartuta):

udalaren izena eramango duten garaikurrak eta oroigarriak, toponimiari lotutako plakak, eta abar”.

Atxegaldeko lokala erabilera anitzekoa izatea nahi du Usurbilgo Udalak. “Horregatik, herriko beste taldeek ere erabiltzeko eskubidea izango dute. Lokalak 175 metro karratu ditu, guztira, eta Buztinzulori doan utziko zaizkion gelen azalera

ren batura 89 metro karratukoa da. Gainerako espazioak beste elkarteekin konpartituko ditu. Izatez, elkarteak kideak hasiak dira lanean: lokal barrua ez ezik, kanpoko plazan ere jarriak dituzte eurek egindako azulejuak, eta ataria apaintzea dute hurrengo helburua”.

Buztinzulo Zeramika taldea 1987an sortu zen arren, iaz “talde eraginkor berri bat hasi zen buztzingintza berreskuratu eta zabaltzeko dinamizazio lanetan. Taldeak konpromisoa du elkargune berri bat sortzeko, irekia, arte plastikoak, zeramika eta buztzingintza tradizionala lantzeko, “euska kulturatik abiatuta mundu zabalera joateko”; norbanakoen proiektuak zein talde bezala herrirako proiektuak sustatu nahi dituzte”.

NOAUA! elkarteak dinamizatuko du “650 Usurbil bizi” egitasmoa

Dinamizazio lan hau bideratzeko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak egunotan. “Proiektua herrian sustraituko duen urrats garrantzitsua da”, zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak akordioa Potxoenean izenpetu aurretik. Horrekin batera, “Udalak eta NOAUA!-k urte luzeetako elkarlan horretan sakontzen duen beste ekimen garrantzitsua da” nabarmendu zuen.

Udalak urtero egingo dion diru ekarpenarekin langile berri baten kontratazioa bideratuko da. Urrats honek pauso gehiago ekarriko ditu laster. Hala nola, “turismo gune bat irekitzea asteburuetan. Hemendik eratorritako eskaintzak martxan jartzea, bisitetarako beste norbait kontratatu ahal izatea”.

“Aurrekari polita”

“650 Usurbil bizi” egitasmoak eduki berritzaileez gain, tankera bereko kudeaketa modua izan behar zuela ikusten zuten eta hortik NOAUA!



Hitzarmen honen baitan lanaldi erdiz langile bat kontratatuko du NOAUA!-k.

K.E.-ri egitasmoan parte hartzeko egin zitzaion gonbita. “Turismo eskaintza baino gehiago den proiektuaren garapena eta kudeaketa bere gain hartuta, ekarpen oso balioetsua egitera goaz. Aurrekari polita beste herri batzuentzat ere”, zioen egitasmoaren sustatzaile Jon Maiak.

“Erronkazaleak gara” eta kultur elkarteak jasotako proposamenari baiezkoa eman ziola adierazi zuen sinatze unean NOAUA!ren lehendakari Idoia Torregaraiak. Proiektuak

“bete-beteen bat egiten du NOAUA!ren baloreekin; elkarlan, berrikuntza eta kulturarekin. Poz-pozik ekingo diogu bide berri honi”.

Hitzarmen honen testuinguruan, lanaldi erdiz langile bat kontratatuko du NOAUA!-k. “Ekintzailea, herri dinamiketan esperientziaduna” behar dugu, NOAUA! K.E.-ko dinamizatzaile Alaitz Aizpuruaren esanetan. Curriculuma urtarillaren 9a baino lehen bidali beharko dituzte interesdunek.

Aurtengoa ere, kultur uzta emankorra

Udal liburutegiaren eta NOAUA! K.E.-ren eskutik ikusgai izango duzue asteotan Sutegin, 2022ko herri honen sorkuntza uzta. Emankorra baita aurtengoa ere. Herriko sortzaileen proiektu pertsonalak edo herriko eragileen enkarguz egin edo esku hartu diren proiektuok bildu ditu kultur-etxeke mahaitxoak:

■ Edorta Agirre: “Amantala eta mantela” liburua.

■ Ixabel Agirresarobe, I. Martiarena “Mattin”: “Amona Tomaxa eta Elkano” ipuina.

■ Yolanda Arrieta: “Kax-Kax!” eta “Zazpi pertsonaia istorio bila”.

■ Joxan Artze: “Enborretik. Antologia poetikoa” liburua.

■ Ainara Azpiazu ‘Axi’: “Axarko” ipuina.

■ “Hamazazpigarrenean aida-nez”: Ugaitz Agirre eta Yolanda Arrietaren sorkuntza lanak.

■ Itxaro Bordak udalerrri honetan sortutako “Gauak zuri Usurbilen” narrazioa.

■ Jakoba Errekondo: “Ilargia eta landareak 2023” egutegia.

■ Joseba Larratxe: “Ni ez naiz

Mikel Laboa” komiki-liburua.

■ Amagoia Mujika: “Munduak guztiontzat behar luke, baina ez da” liburua.

■ Peru Galbeteren “Beiratu” diskoa.

■ Neonaren “Mundu berri bat” diskoa.

■ Odolaren Mintzoa taldekoen “Hauskor” diskoa.

■ Viafararen estreinako diskoa.

■ Mikel Laboa eta Artze anaiak batzen dituen “Ikimilikiliklik” diskoa.

■ Mikel Telleriaren “Zumeta” diskoa.

Elkarretaratzea ambulatorioan

LAB, ELA, SATSE, SME, CCOO eta UGT sindikatuek mobilizazio eguna deitu dute abenduaren 22rako Osakidetzan, negoziazioa eskatu eta osasun publikoa babesteko.

Abenduaren 22an, 13:00ean

Elkarretaratzeak deitu dituzte 11:00etan ospitaleetan eta 13:00ean ambulatorio atarrietan.

Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa

Izena abenduaren 30a baino lehen eman beharko da Oiarde kiroldegian. Hamar saio izango dira, asteartero, 16:30-18:00 artean urtarillaren 10etik aurrera. 14 laguntzako lekua egongo da. Baena Gorosabal fisioterapeutak, obstetrizia eta ginekologia berreziketan adituak bideratuko duen ikastaroak zoru pelbikoa indartzea izango du helburu.

Iruzurrak salatzeko kanala

Usurbil.eus atarian jarri du martxan Udalak, iragan martxoaren 17ko udalbatzarrean onartu zuten iruzurraren aurkako planaren harira, “udal organo eta erakunde zerbizura dauden hautetsiek eta langileek bete beharreko printzipio eta arau etikoak betetzen laguntzeko”. Kanal horretan formulario bat bete ahalko da eta “iruzurraren zantzuak aurkeztu”. Udaletik ohartarazi dutenez, “postontziak konfidentzialtasuna bermatuko du uneoro”.




ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!

seeglass one
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



650
USURBIL
bizi

noava

LAN DEIALDIA - TURISMO DINAMIZATZAILEA

650 Usurbil Bizirik turismo eredu berria dinamizatzailearen bila gabiltza.
Noava! K.E.-n lanaldi erdiko urtebeteko kontratua eskaintzen da (2 hilabeteko frogaldia).

Betebeharrak:


- Diplomatura edo gradu baten jabe izatea. Turismo, Kultura, komunikazio edo jarduera soziokulturarekin lotutakoak (erlazionatutako masterra edo postgradua ere onartuko dira)
edo
- Beste diplomatura baten jabe izanik, prestakuntza osagarria edo esperientzia izatea kultura, ondarea eta turismo alorrean.
 - EGA edo baliokidea izatea.

Baloratuko dira:

- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna. •Ekintzailea izatea eta proiektuak sortzeako gaitasuna izatea.
- Kanpoko hizkuntzak jakitea. • Herrigintza esperientzia izatea. • Turismo alorrean esperientzia izatea.
- Webguneak eta sare sozialeen kudeaketan ezagutza izatea.

Interesatuak bidali curriculumak elkartea@noava.eus helbidera
2023ko urtarrilak 9 baino lehen.

INFORMAZIO
GEHIAGO



San Tomas azoka jendetsua

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala izan arren, frontoia bete zuen NOAUA! Kultur Elkarteak abenduaren 18an antolaturiko San Tomas Azokak. Hiru urteren ostean ohiko formatura itzuli zen hitzorduan, aurreko urteetan Erle Egunera etortzen ziren hainbat postu izan genituen, baita herrikideenak ere: Alkartasuna Kooperatiba, Usurbil 1936, Udarregi Ikastola eta Aginagako Eskola...

Ezin ahaztu, sabela poztu ziguten talogile eta gaztaingileez. Eguna ordea, herriko ekoizleen txapelketek girotu zuten. Etxerako sagardoa egiten dutenen parte hartzeari eutsi zaio aurten, babarrunarenak aldiz nabarmen beherantz egin du. Halere poz-pezik ziren azoka amaieran saritutako ekoizleak.



Ixabel Agirresarobe kontalari lanetan aritu zen Sutegin. Azoka amaieran sari banaketa egin zen frontoian.



Etxerako sagardoa egiten dutenen parte hartzeari eutsi zaio aurten, babarrunarenak aldiz nabarmen beherantz egin du. Argazki gehiago noaua.eus web orrian.

San Tomas Azokako txapelketak

Babarrun txapelketa

Sarituak:

- 1. Aldapa baserria. 150 euro eta txapela.
- 2. Zugasti baserria. 90 euro eta kopa.
- 3. Portu baserria. 50 euro.
- Parte hartzaileak: guztira zortzi. Portu baserria, Aldapa baserria, Galdagorri baserria, Zugasti baserria, Agerre Txiki baserria, Mikel Manterola,

Ibindos baserria eta Agerreazpi baserria.

- Epaimahaia: Tolosako babarrun elkarteko kideak eta Oxkar Santamaria udal zinegotzi eta babarrun ekoizlea.

Sagardo txapelketa

Sarituak:

- 1. Etxetxo baserria. 150 euro eta txapela.
- 2. Zugasti baserria. 90 euro

eta kopa.

- 3. Troya baserria. 50 euro.
- Parte hartzaileak: 21 guztira. Jon Mikel Larrañaga, Etxetxo baserria, Izeta anaiak, Koldo Lertxundi, Aldapa baserria, Gorostidi baserria, Ibindos baserria, Zugasti baserria, Lizaso anaiak, Agerre Txiki, Egiluze Haundi, Teresaenean etxea, Belmonte 14 Kalezar, Troya baserria, Xabier Linazasoro, Ima-

nol Eizagirre, Aritz Zabaleta, Zumitza baserria, Kupela Kupela Taldea, Agerrazpi baserria, Txantxon baserria.

- Epaimahaia: Santueneko Ibai-ondo elkarteko ordezkaria, Urdaira sagardotegiko ordezkaria, Mahaspildegiko ordezkaria eta Sagardo Egunaren Lagunak taldeko ordezkariak.
- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

Lera-pista, pareta-jokuak eta labirintoa!

4 - 10
urte

Doako sarrera Urbil-eko
aplikazioa erakutsiz
25/11 - 07/01



Orduategia

Astelehenetik ostiralera eta igande/jaiegunetan 17:00etatik 20:00etara.

Larunbatak 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

*Abenduak 24 eta 31, 11:00etatik 14:00etara.

*Abenduak 25, urtarrilak 1 eta 6 jarduera itxita egongo da.

Informazio guztia: www.urbil.es.



Joan-etorria

Horra tren: goian badoa, eta behean badator. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira gutzira.



Speech bubbles with characters and their comments:

- NIRE ZORROA TXIKIENA DA
- NGA-NGA ABABALI
- NIRE EKIPAJEAK EZ DU GURPILIK
- NIREA TIRAKA ERAMATEN DA NORMALKI
- NIRE ZORROAK BI KOLORE DITU
- NIRE ZORROA JERTSEAREN KOLORE BEREKOA DA
- NIREA BIZKAR-ZORROA DA
- EZ AL DIDAZU INOREN ANTZIK HARTZEN?

Illustrations of various bags and suitcases with labels:

- ZORRO HONEN JABEAK AGERIAN DITU HORTZAK
- HONEN JABEA EZ DA GAZTEA
- ZORRO HONEN JABEARI LAU HORTZ IKUSTEN ZAIKIO
- POLTSA HONEN JABEAK EZ DU BETAURREKORIK
- ZORRO HONEN JABEA IKAZKIN EZAGUNA DA
- ZORRO HONEN JABEAK BETAURREKOAK DITU
- HONEN JABEAK AHOA ZABALIK DU
- POLTSA HONEN JABEAK LEPOKOA DU

Bakoitzari berea

Pertsona hauek denek ekipajea galdu dute tren-geltokian. Eman bakoitzari berea.



Handienetik txikienera

Ordena itzazu tren-gidari kapelu hauek handienari 1 zenbakia, hurrenari 2 eta txikienerari 8 emanaz.

Sudokua


	B			Z	
	U	Z		T	
Z					T
L					U
				I	B
B	L				

Trenari BULTZI ere esaten zitzaion lehen. Ba al zenekien? Osa ezazu sudokua, BULTZI hitza osatzen duten hizkiekin (B, U, L, T, Z eta I). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Itzala

Ui... Trena galduko duela ematen du, baina zein da bere itzal zuzena?



Margotu

Hona hemen tren zahar bat. Dena margotu baino lehen, marraztuko dizkiozu: 1) ke beltz zikina. Tximiniatik gora ezkererantz doa. 2) Bi txantxangorri zorabiatuta. 3) Gidariaren burua leihoan, bisera eta guzti. 4) Zure gustuko animalia (zakurra, elefantea...) kabinako teilatuaren gainean.

Aginagako guatekean, dantza betean



Mariatxien doinuekin gerria mugitzen ederki dakitela erakutsi zuten Eliza Zaharrera hurbildu zirenek.

Guatekean ordutxo batzuk runbatean. Mariatxien doinue-dantzan eta kantuan aritzeko aukera izan zuten adinekoek Aginagako Eliza Zaharrean la-

runbatean. Mariatxien doinuekin gerria ederki mugitzen dakitela erakutsi zuten jubilatuek kulturgunean.

Bi herritar omendu zituzten Kirol Galan



2022. urtean nabarmendu diren kirolariak saritu ditu Foru Aldundiak. Tartean bi herrikide; Nahia Zudaire eta Esther Arrojeria.

Nahia Zudaire igerilaria Kirol Egokituko Munduko Txapelketan hirugarren izan zen uda partean.

Esther Arrojeria eskubaloi jokalaria aldiz, 2021/2022 Ligako txapeldun izan zen Bera Bera taldearekin.

ARATZ

zabaleta anaiak

1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

Eskulan tailerra egin zuten Sutegin, Zorione Mendezen gidaritzapean



Haria baliatuz ponpoiak egin zituzten.

Zorione Mendez herritarrak eskulan tailerra eman zien 8-10 urteko haurrei Sutegi udal liburutegian. Dozena t'erdia bat haur elkartu ziren abenduaren 16ko hitzorduan, hariarekin ponpoiak egiteko. Ordu eta erdiz aritu ziren Zorioneren ja-

rraibideak jarraitzen etxea apain jartzeko eskulana amaitu arte.

Urtarrilean gisa honetako beste tailer bat aurreikusit dute liburutegian, baina hori 10-12 urte bitarteko haurrentzat izango da.

LHko ikasleak: “Bizi ditzagun arduraz aurtengo jaiak”



LH6ko ikasleek poster batzuk ipini dituzte Sutegin eta Oiardo kiroldagian.

Erosketak, apaingarriak, kaleetan argiak... Eguberrietako ezaugarriak dira. “Baina Gabonetan izaten dugun jokabidea guztiz egokia al da?”, zalantza hori dute Udarregi ikastolan. “Ez al gara gehiegizko kontsumoan erortzen?”.

Honetaz guztiaz hausnar-

tzeko eta herritarren jokabidean eragiteko, LH6. mailako ikasleek poster batzuk prestatu dituzte. Posterrak ikusgai daude Sutegin eta Oiardo kiroldagian.

“Bizi ditzagun arduraz aurtengo jaiak, eta... Urte berri on!”.

Berdintasunaren bitartez ekiditen dugu desberdintasuna.

Desberdintasun gutxien dituen Europako lurraldeen artean jarraitu nahi dugu, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundia babestutako lanaren eta ekonomia sozialaren eredu propioa lantzen ari da, Etorbizuna Eraikiz ekimenaren bidez.

Gizarte politikak kudeatzeko modu berezia dugu. Eredu propio bat, gizarte eragileekin eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin sinatutako hitzarmen eta akordioen bidez, gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak eskaintzeko lan egiten dugu.

Etorbizuna *Orain*.

etorkizunaeraikiz.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



ETORKIZUNA ORAIN

PAULA ESTEVEZ

%54tik %62,8ra igo da euskararen erabilera azken bost urteotan Usurbilen

Soziolinguistika Klusterrak bost urtean behin egiten duen hizkuntzen kale erabileraren neurketako datuak plazaratu ditu.

Duela bost urteko jaitsiera irauli dutela islatzen dute Soziolinguistika Klusterrak hizkuntzen erabileraren kale neurketari buruz plazaratu dituen azken datuek. Euskararen kaleko erabilera %62,8koa da Usurbilen, 2016an egindako azken neurketako zifrarekin alderatuta, 8,8 puntu egin du gora erabilerak. 2001eko behaketa laneko datuarekin alderatuta ere 8,4koa izan da igoera. Baita auzo guztietan ere, euskaldunena den Aginagan izan ezik; zortzi puntu jaitsi da azken bost urteotan, 10 puntu azken hamarkadan.

Emakumezkoen artean erabilera zertxobait handiagoa da gizonezkoen artean, adinekoetan izan ezik. Adina aipatuta, zenbat eta gazteagoa izan, euskara gehiago entzuten da Usurbilgo kaleetan. Haurren,



Duela bost urteko jaitsiera irauli dutela islatzen dute Soziolinguistika Klusterrak plazaratu dituen azken datuek.

ERABILERA DATUAK

“Emakumezkoen artean erabilera zertxobait handiagoa da”

gazteen eta heldu gazteen arteko erabilera batez bestekoa baino altuagoa da. Eta adin beretsuko artean ere euskara ahotan gehiagotan hartzen da, adin nahasketa dagoenean baino. Helduen eta adinekoen artean erabilera baxuagoa da. Eta gehiagotan dihardute euskaraz

haurrak gertu daudenean, ez daudenean baino.

Hitanoaren erabilera baxua

Euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean bada aldea. 2016an herrikideen %83,6a (%72,5a euskaldunak, %11,1a ia euskaldunak) euskaraz mintzatu edo gutxienez ulertzeko gai zen. Erabilera aldiz %54koa zen. Bost urte beranduago erabilera 62,8koa da. 2001etik 8,4 puntu egin du gora erabilerak, ezagutzak aldiz ez du aparteko

gorabeherarik izan; %72,3koa zen 2001ean, %72,5ekoa 2016an.

Hitanoaren kale-erabilera ere neurtu du Soziolinguistika Klusterrak. Behatutako elkarrizketen %15,6a hika ari ziren, %84,4a zuka. 2016an behatu zuten lehen aldiz; orduko hartan, %28,1ekoa zen erabilera. Gizonezkoen artean nabarmen gehiago entzun zuten azterketarako datuak biltzeko unean; %22,7a ari zen hika, emakumezkoen %7,6. Aldaerei dago kienean, %81 toka, %11 noka, %6 aldaerarik gabe ari zen hizketan behaketa lana egin zuten unean. Adinari erreparatuta, gazteen eta adinekoen artean erabiltzen da gehien, haurren artean oso baxua da.

Herri erdigunean, Aginagan, Santuenean, Munalurran-Artzabalen eta Zubietan egin zituzten iazko udazkenean behaketa lanak. Aztertzaileak zonalde hauetan guztietan osatu zituzten ibilbideetan hamaseina ordu aritu ziren herritarren elkarrizketak behatzen.

Hizkuntzen erabileraren kale neurketa

Lagina

■ Behatutako elkarrizketak: 2.721.

■ Behatutako solaskideak: 8.356.

Emaitzak

Datu orokorrak:

■ %62,8a euskaraz, %36,5a gaztelaniaz, %0,1a frantsez, %0,6 beste hizkuntzetan.

Aurreko azterlanetako datuekin alderatuta:

■ 8,8 puntuko igoera 2016tik, 8,4 puntukoa 2001. urtetik. %54ko erabilera 2016an, %62koa 2011n, %57,2koa

2006an, %54,4koa 2001ean.

Auzo-herrietako euskararen erabilera:

■ %81,9 erdigunean (%73,1 2016an, %73,2 2011n).

■ %81 Aginagan (%90 2016an, %92,8 2011n).

■ %33,5 Santuenean (%25,5 2016an, %25,5 2011n).

■ %58,9 Olarriondon (%48,5 2016an, %55,3 2011n).

■ %50,8 Zubietan (%38,3 2016an, %61,5 2011n).

Euskararen erabilera sexuaren arabera:

■ %63,7 emakumezkoen artean

(%53,2 2016an, %62,8 2011n).

■ %61,9 gizonezkoen artean (%54,8 2016an, %61,1 2011n).

Adin-tartearen arabera:

■ %76,5 haurren artean.

■ %76,3 gazteen artean.

■ %56,7 helduen artean (%63,8 heldu gazteen artean, %50,8 heldu nagusien artean).

■ %44,4 adinekoen artean.

Hartuemanak euskaraz:

■ %81,4 haurren artean.

■ %83,3 gazteen artean.

■ %50,3 helduen artean (%53,5

heldu gazteen artean, %47,2 heldu nagusien artean).

■ %41,5 adinekoen artean.

Haurren presentziaren eragina:

■ %81,4ko erabilera haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean.

■ %52,3 nagusiak bakarrik (haurrik gabe) daudenean.

%70,2 haurrek eta nagusiek osatutako taldeetan:

■ %72,9 haurrek hitz egiten dutenean.

■ %67,3 nagusiek hitz egiten dutenean.

Euskara ez den beste hizkuntzen presentzia nabarmena gazteen artean, bereziki ikus-entzunezkoen kontsumoan

U surbilgo herrikide be-
launaldi gazteenak
euskaraz ikasteko
aukera du herria bertan. Euska-
raz bizitzeko hamaika ekimen
aisialdi eremuan. Baina nabar-
mentzekoa da, eremu honetan
beste hizkuntzen eragina ere,
batez ere teknologia berrien bi-
dez jasotzen dituzten edukie-
tan. Ikus-entzunezkoen kont-
sumoaren inguruko ikerketa
egin du Udallerri Euskaldunen
Mankomunitateak (UEMA).

Azterlan honetan parte har-
tu dute mankomunitateko kide
diren udallerriek, tartean Usur-
bilek. Herri honen kasuan,
Udarregi Ikastolak, baita Agi-
nagako eta Zubietako eskolek
ere. LH 4-6 mailetakoa ikasleen
baliozko 102 galdetegi bildu
dituzte, 243 DBH-n eta Batxi-
largoan. 10-18 urte arteko gaz-
teek parte hartu dute inkesta
honetan. Behaketa lana egin
den udallerri euskaldunetan,
11.600ek guztira.



Ikus-entzunezkoen kontsumoaren inguruko ikerketa egin du Udallerri Euskaldunen Mankomunitateak.

UEMA

**“Bideo jokoetan,
erdia baino gehiago
gaztelaniazkoekin
jolasten da”**

**Euskarak presentzia
nabarmenagoa LHkoen artean**
Nabarmentzeko moduko datu
bat baino gehiago dago segi-
dan datozen zenbakietan. Le-

hen hizkuntza euskara duen
belaunaldi gazteenak beste
hizkuntzen eragin nabarmena
jasotzen du egunerokoan kon-
sumitzen duten ikus-entzune-
nezkoetan. Orain arteko belau-
naldi euskaldunena izango da;
euskaraz errazago moldatzen
da %65 baino gehiago. Etxean,
ikasgelan, ikasgelatik kanpo
ikaskideekin daudenean, lagu-
nekin, edota eskolaz kanpoko

ekintzetan, %80 inguruk eus-
kara hartzen dute ahotan. Txa-
teatzen dutenean ere bai idaz-
terako orduan, %72,5ak.

Baina aisialdian, ikus-en-
tzunezkoak zer hizkuntzetan
kontsumitzen dituzten, beste
kontu bat da. Bideo jokoetan
esaterako; erdia baino gehiago
gaztelaniazkoekin jolasten da.
Musikan Lehen Hezkuntzan
%32,3ak beti edo batez ere
euskaraz entzuten du musika;
BH-n ez, %9,5ak baino ez beti
edo batez ere euskaraz. Adin
tarte horretan, 51,1ak beste hiz-
kuntzetan.

Telebistan LH-koen %52,9ak
ETB1 (euskaraz) eta Clan (er-
daraz) ikusi zituen inkesta egin
aurreko egunetan; BH-koen ka-
suan, %29,6ak ETB1, %21,8ak
FDF. %70ek baino gehiagok
plataformako edukiak nagusiki
erdaraz kontsumitzen ditu. Bis-
tan denez, beraz, LH-n oraindik
ikus-entzunezko gehiago jaso-
tzen dituzte euskaraz, Bigarren
Hezkuntzan baino.

Erdaraz gehiago sortzen da

Sare sozialen erabilera ere az-
tertu dute. Orohar, Youtube
da plataforma erabiliena gaz-
teen %80 ingururentzat. BH-n
Whatsapp-a da nagusi halere
(%86,8), Instagram-a (%69,1)
eta Tiktok-a (%66,3). Askoz
baxuagoa da sareon erabilera
LH-ko ikasleen artean, %36,3a
Tiktok-a, edota %31,4ak Whats-
app-a baliatzen du.

Sare sozialen unibertso za-

baletik, hedapen handieneko
lau hautatu dituzte azterlan ho-
netarako: Instagram, Youtube,
Twitch eta TikTok. Erabiliena
Youtube izanik, ia %60ak ba-
teaz ere gaztelaniaz kontsumi-
tzen ditu plataforma horretako
edukiak. Batez ere gaztelaniaz
BH-ko ikasleen %25,1ak eta
LH-koen %18,6ak batez ere
gaztelaniaz Twitch-en. Aldiz,
%2,9ak batez ere euskaraz LH-

n, eta inork ez BH-n hizkuntza
berean. Tiktok-en ere berdin;
ikusitako edukien %41,2ak ba-
teaz ere gaztelaniaz kontsumi-
tzen dute BH-n, %0,4ak batez
ere euskaraz; %25,5ak batez ere
gaztelaniaz eta %4,9ak batez
ere euskaraz LH-koen kasuan.

Ikusi edo entzundako edu-
kiak ze hizkuntzetan jaso era-
gina badu. Sortutako edukiak
ze hizkuntzetan partekatzen

dituzten ere galdetu zaie. Ins-
tagram baliatzen dutenen ka-
suan, BH-n gehienek, %25,5ak
beti edo gehienbat euskara
baliatzen dute. Twitch-en
%23,5ak gaztelaniaz, %2,5ak
batez ere euskaraz. Tiktok-en
LH-koen kasuan %12,7ak ba-
teaz ere gaztelaniaz eta %5,9ak
batez ere euskaraz; BH-n
%6,6ak batez ere gaztelaniaz
eta %1,2ak batez ere euskaraz.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA
SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA
943 36 10 79

ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

“Maria Angeles etxean geratuko da”

Helburua bete da; urriaz geroztik herrian sortu den bilguneak aldarrikatu moduan, “Maria Angeles etxean geratuko da”. Azken egunotan jakin denez, amaitu da 80 urteko herrikidearen amesgaiztoa. Enkante bidean jarri zioten bere bizilekua, baina “epaileak etxea enkantetik atera eta zorra ordaintzeko aukera eman du”. Etxeak zuen zorra kitatu dio herrikide baktek. Pisua erosi dio eta Otaegiri usufuktuan utzi bera bizi den artean.

Maria Angelesen egoera bigabegabea amaitu da bai, baina adi egoteko deia egin du bera babestu eta etxekaleratzeen aurka azken hilabeteotan Usurbilen eragiten aritu den herri bilguneak. Iragan igandeko San Tomas azokaren baitan, elkarretaratzea deitu zuen Dema plazan. “Herri bilgune honetatik adierazi nahi dugu hau ez dela hemen bukatzen eta gaurkoan Maria Angeles izan dela baina bihar beste edozein izan daitekeela”, ohar-tarazi zuten.

Gertatuko balitz, aurre egiteko prestasuna adierazi zuten, Maria Angelesen kasuarekin egin duten moduan. “Herri honek ezaugarri nagusi bat



Enkante bidean jarri zioten bizilekua Maria Angelesi, baina “epaileak etxea enkantetik atera eta zorra ordaintzeko aukera eman du”.

MARIA ANGELES OTEGI

“Salatzeko lotsarik ez da izan behar. Hau guztia geratzeko modu bakarra da”

baldin badu herri elkartasuna da eta beste behin ere erakutsi dugu bidegabekeriaren aurrean ez dugula etsiko eta ogi gogorrari hagin zorrotzak erakutsiko dizkiogula”.

Hainbat herritarrek bat egin zuten, “Etxekaleratzeen aurrean herri elkartasuna. Putre-funtsik ez!” aldarripean egin zuten elkarretaratzearekin. Eta aurreko mobilizazioetan baita. “Hasieratik garbi izan dugu etxegabetze hau ez

genuela onartuko eta helburua Maria Angelesek bere etxean bitzen jarraitzea zela. Horretarako bide juridiko guztiak aztertu ditugu, mobilizazioak antolatu ditugu eta ekonomiki aurreikusten genuen zorra kitatzeko ekimen desberdinak irudikatu ditugu”.

“Herri hau oso solidarioa da”

Maria Angeles bera abenduaren 18ko hitzorduan izan zen. Mobilizazio amaieran NOAUA!ri adierazi zionez, “oso ondo sentitzen naiz”, eta esker ona baino ez zien adierazi nahi izan lagundu dioten guztiei. “Herri hau oso solidarioa da. Oso pozik nago denen partetik jaso dudana babesagatik, izugarria izan da. Milesker

denoi!”.

“Osasuna eta lasaitasuna irabazi ditut”

Ez du zalantzarik, bere kasua publiko egiteko erabakiarekin bete-betean asmatu duela dio. “Salatzeko lotsarik ez da izan behar. Hau guztia geratzeko modu bakarra da. Neure kasuan, egin dudana hobereena dela uste dut. Osasuna eta lasaitasuna irabazi dut”. Gauza bera egitera animatzen du egoera berean egon daitekeen edonor. “Mota honetako arazoak daudenean-badaude eta egongo dira-etxegabetzeen aurkako plataformara dei dezatela”, aholkatzen die Maria Angelesek. “Asko lagunduko diete eta ez diete ezer kobratuko”, ziurtatu zizun. Kide guztiei esker ona adierazi nahi die, modu berezian abokatuari, “oso profesional ona da, lagundu didan guztiagatik, izugarri maite dut”.

Etxegabetze asko gerarazi dituztela oroitarazi zizun, berea ordean “kasu konplexuagoa” izan dela. Hil zitzaion semea senide bakarra zuen. “Neure kasuan ez nuen inor laguntzeko”. Oroitzen du nola “etxerik gabe geratzeko zorian egon nintzen”. Baina garaiz heldu zela bidegabekeria honi aurre egitera.

Maria Angeles Otegi: “Herri honetan gazte zoragarriak daude”

Zorte ona izan duela dio, “presa zegoenez, etxea saldu beharra zegoen. Usurbildar batek erosi du etxea. Ezagutzen ditut, beraiek oso pozik daude eta ni are gehiago”.

Bidelagun izan dituenak gogoan izan zituen uneoro elkarrizketan zehar; Udala eta zehazki alkatea. “Nire kasuaren berri izan bezain laster, leku askotara lagundu nau”. Mobilizazioetan parte hartu duten guztiak ere gogoan har-

tu nahi ditu. “Izugarria izan da babesa, ez nuen halakorik espero. Elkarretaratzeetan hutsik egin ez duen jende asko ikusi dut”. Eta herrian osatu den babes sarea. Belaunaldiartekotasuna sustatu duen bilgunea hain zuzen, jubilatutako kideak eta gazteak batu baititu. “Denak ziren laguntzeko prest”. Herriko gazteak eskertu nahi ditu, Aztarririk azarora amaieran antolatutako Gazte Eguna borobiltzeko afa-

ritan jaso zuten dirua Maria Angelesi bideratzekoak ziren, zorionez horren beharrik ez da izango. “Herri honetan gazte zoragarriak daude”, goraiatu nahi izan du Maria Angelesek.

Herrikide askoren babesa

Bizi izan duen bidegabekeriak herri barruko sare soziala handitzen lagundu diola adierazi dio NOAUA!ri. “Lehen ez nuen jende asko ezagutzen. Gai honen herrikide asko hurbildu

zaizkit besarkatzera, eta oso pozik nago”.

“Orain bizitzera”

30 urte daramatza Usurbilen, “oso gustura nago, herri hau oso gustuko dut”. Eta hala izaten segiko du. Agurrean argi adierazi digu, jasan duen bidegabekeria konponduta, “orain bizitzera” doala. Eta luzerako gainera, “oso ondo nago osasunez, urte luzez biziko naiz”, adierazi digu pozarren.

Santueneko eskubaloi kantxa dagoen bezala utziko dute

Auzokideen ia erdiak parte hartu zuen eta proposaturiko galderari gehienek, %70ak, ezezkoa eman zioten. Hortxe abenduaren 17an Santuenean egin zuten galdeketatik nabarmendu beharreko bi datuak.

Auzoan bertan errolatuak dauden 16 urtetik gorako 359 bizilagun zeuden deituak parte hartzera. %46ak bat egin zuten deialdiarekin eta auzoaren erdigunea berrantolatu nahi duten edo ez erabaki dute, bozken bidez. Auzoaren erdigunea berrantolatu edo ez, "horretarako eskubaloi kantxaren neurriak txikitu behar bada ere". Hitzaz hartzeko egoitzan bilakatu zen Santuenea Elkartearen lokalean jasotako 166 bozketatik 116k eman zuten ezezkoa. Gainerako %30ak, beste 49 auzokideek baiezkoa adierazi zuten.

Emaiza, loteslea

Usurbilgo Udaletik adierazia zuen, Santueneako bizilagunen gehiengoak adierazitako borondatea errespetatuko zutela.



Baikor eta pozik agertu ziren galdeketaren sustatzaileak.

AUZO PLANA MARTXAN

"Eskubaloi kantxa dagoen bezala utziko dute, ez dute neurritz txikiagotuko. Horrek ez du esan nahi auzoan eskuhartzerik egingo ez denik"

Bestela esanda, loteslea izango zela galdeketaren emaitza. Bozken gehiengo auzoaren erdigunea berrantolatzearen aldekoa izan balitz, plaza zenbat eta nola txikiagotu zehazteko hainbat lan saio egitekoak zi-

ren hurrengo hilabeteetan.

Bozken gehiengoak ordea kontrakoa adierazi zuenez, eskubaloi kantxa dagoen bezala utziko dute, ez dute neurritz txikiagotuko. Horrek, aldiz, ez du esan nahi auzoan eskuhartzerik egingo ez denik. Iazko ekainetik azken urte eta erdi honetan Santuenean egin duten parte hartze prozesuan adostu dituzten eskuhartzei bide nola eman zehaztu behar dute hurrengo hilabeteotan, aipatu moduan, eskubaloi kantxa neurritz txikiagotu gabe.

Epe motzera begira, Udalak hasieraz onartzeaz dituen

aurrekontuetan 50.000 euroko partida bideratu asmo dute Santuenean hobekuntzak egin hastera. Azken urte eta erdi diseinatu duten Auzo Planaren garapena epe luzerako kontua izango da. Urteka eta faseka lehentasunak finkatuz bideratu asmo dituzte eskuhartzeak; auzokideak eta udal ordezkariak batuko dituen mahian.

Santueneko galdeketa

Galdera: "Nahi al duzu auzoaren erdigunea berrantolatu, horretarako eskubaloi kantxaren neurriak txikitu behar bada ere?"

■ Bai: 49 (%30).

■ Ez: 116 (%70)

■ Baliogabea: 1.

■ Bozka kopurua: 166, %46.

■ Galdeketa parte hartzera deituak zeudenak: 16 urtetik gorako 359 auzokide.

■ Parte hartzea: %46, 166 bozka.

■ Deitzailea: Santuenea Elkartean.

"Emaitzak ikusita, beharrezkoa zen kontsulta egitea"

Baikor eta pozik agertu ziren Santuenean egin duten galdeketaren sustatzaileak, bozkek zenbatu eta emaitzak ezagutarazi berritan. Talde eragiletik adierazi zuten, "oso pozik gaude. Emaitzak ikusita, beharrezkoa zen kontsulta egitea. Lanean jarraituko dugu urtariletik aurrera".

Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak adierazi zuenez, "ezer baino lehen, zorionak Santuenea! Benetan oso pozik gaude gaurko galde-

ketan izan den parte hartzearekin". Auzotarrek agerturiko jarrera nabarmendu zuen. "Auzotarrek galdeketa honekiko erakutsi duten ardura, konpromisoa eta atxikimendua bada nabarmenezkoa".

Emaitza loteslea izango da Udalak aurrez iragarri zuen moduan. "Auzotarrek hitz egin dute, erabaki dute, eta guk erabaki hori aintzat hartuko dugu", iragarri du alkateak.

Galdeketa eginda, iaztik Santuenean etorkizuneko auzo eraikitze abian den parte

hartze prozesuren baitan osatu duten plangintza gauzatzeko urratsak emango dituzte urte berriarekin batera. "Buru-belarri hasiko gara auzo planarekin; auzo planak bi dokumentu utzi zituen. Auzoak eguneroko bizitza hobetzeko behar zituen eskuhartzeak zeintzuk ziren zerrendatuta daude, eta era berean, Auzo Planak Santuenean hurrengo 8-10 urteotan izan behar duen eraldaketa jasotzen du eta eraldaketa horretan ere lanean jarraituko dugu. Badugu talde bat osatua Udalak

eta Santueneko herritarrek. Taldetxo hori bilduko dugu urtarilean eta ikusiko dugu hemendik aurrera zer urrats eman behar ditugun".

Orain arteko bide honetan auzotarrek erakutsitako jarrera nabarmendu zuen. "Gaur norbait zoriondu behar bada alboan ditudan pertsonak, talde eragilean parte hartu duten auzotarrak dira, egin duten lana izugarria izan delako eta hain zuzen ere lan horrek ahalbidetu du halako parte hartzea izatea".

Mirotzen omenezko eskubaloi txapelketa

Bi urteko etenaldiaren ostean, 2008an zendutako eskubaloi jokalaria ren omenezko infantilen arteko txapelketa bueltan dator Oiar-dora.

Abenduak 30, ostirala

Parte hartzaileak: Usurbil K.E., Anaitasuna, Basauri E.T., Tolosa C.F., Zarautz Z.K.E., C.D. El Pilar Zaragoza.

Neskak

- 9:30 Usurbil K.E.-Tolosa C.F.
- 10:30 Aiala-Anaitasuna.
- 11:30 Usurbil K.E.-Basauri.
- 12:30 Aiala Z.K.E.-Zaragoza.
- 13:30 Tolosa C.F.-Basauri.
- 14:30 Zaragoza-Anaitasuna.
- 16:30 5. eta 6. postuak.
- 17:30 3. eta 4. postuak.
- 19:00 Finala.

Mutilak

- 9:00 Usurbil K.E.-Tolosa C.F.



Usurbil KE-ko jokalaria talde bat, duela hiru urteko txapelketan.

- 10:00 Amenabar-Anaitasuna.
 - 11:00 Usurbil K.E.-Basauri.
 - 12:00 Amenabar-Zaragoza.
 - 13:00 Tolosa C.F.-Basauri
 - 14:00 Zaragoza-Anaitasuna.
 - 16:00 5. eta 6. postuak.
 - 17:00 3. eta 4. postuak.
 - 18:00 Finala.
 - 13:00-15:30 Bazkaria
- Udarregi Ikastolako jangelan.
- 20:00 Sari banaketa.

Oharrak:

- Partida bakoitzak 12 minutuko bi zati izango ditu eta minutuko atsedendaldia.
 - Finaletan ohorezko sakea jaurtiko dute Esther Arrojeriak eta Eneko Furundarenak.
- Antolatzaileak: Usurbil K.E., Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioa eta Euskal Eskubaloi Federazioa.

Espainiako pilota egokituko txapelkunak

Bigarren edizioa irabazi du Beñat Lizaso herrikideak Basauriko Gaizka Fernandezekin batera igandean Iruñeko Labriten jokatu zuen finalean. Joseba Lasa eta Edorta de Anta nafarrak izan zituzten aurkari. Hona tx hiru jokoetara izan zuten neurketako emaitzak: 9-10, 10-4 eta 5-1.



Beñat Lizaso, garaikurrarekin.

Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak

TREN OSO AZKARRA

Joan-etorria Hona tren: goian badao, eta behean badator. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.

TREN TXI AZKARRA

NIRE ZORROA TXIKIENA DA. NIRA-NIRA AMABU. NIRE EKIPAJEAK EZ DU SURPILIK. NISEA TIRAKA ERAMATEN DA NORMALKI. NIRE ZORROAK BI KOLORE DITU. NIRE ZORROA JEKTSAREN KOLORE BERKOA DA. EZ AL DEDAU INOREN ANTZIK HARTZEN? NIREA BIZKAR-ZORROA DA.

Bakoitzari berea Pertsona hauek denek ekipajea galdu dute tren-geltokian. Eman bakoitzari berea.

Sudokua

T	B	L	U	Z	I
I	U	Z	L	T	B
Z	I	U	B	L	T
L	T	B	Z	I	U
U	Z	T	I	B	L
B	L	I	T	U	Z

Handienetik txikienera

Ordena itzazu tren-gidari kapelu hauek handienari 1 zenbakia, hurrenari 2 eta txikienerari 8 emenez.

Itzala

U... Trena galduko duela ematen du, baina zein da bere itzal zuzena?

Margotu

Hona hemen tren zahar bat. Dena margotu baino lehen, marraztuko dizkizu: 1) ke beltz zikina. Tximiniatik gora ezkerrean 2) Bi txantxangorri zorabiatuta. 3) Gidariaren burua leihoan, bisera eta guzti. 4) Zure gustuko animalia (zakurra, elefantea...) kabinako teilatuaren gainean.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia, terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziakoa da. 649 429 416

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Bigarren eskuko Ford Focus Berlina Trend bost ateko ibil-

gailua salgai. Berria, zaindua, garajeen egondakoa. 56.000 km. 125 zaldi. Gasolina. Aurrrerako bi gurpilak lau urtarotarako baliagarriak. 11.900 euro. 629 553 497 (Beatriz).

Gutxi erabilitako lau gurpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 406 209

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrik eman go dizkion pertsona baten bila gabiltza. 608201745

Klase partikularrik emateko prest daudenen zerrenda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16 telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarronden. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jantetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest da goen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsalde haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrik emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrik emateko lan bila nabil.

688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltsiritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalari-tzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duen Udaltzainetan galdetu, bertan utzi dugu.



Zorionak Izar! Abenduaren 24an 10 urte dira gure bizitzara etorri zinela, neska zoragarria zara eta oso harro gaude zutaz. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!



Zorionak Irati!

Urtarrilaren 8an 5 urte beteko dituzu. Muxu handi bat senide eta lagunengatik.

Heriotzak

Juan Bautista Balerdi Ondarra

Abenduaren
16an hil zen,
86 urterekin.

**Goardiako farmaziak**

Asteazkena 21 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna 22 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 23 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 24 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 25 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astlehena 26 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 27 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 28 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 29 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 31 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda abendua

22 osteguna

- **Ezohiko udalbatzarra** 18:00etan Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoan.
- **Zumarteko Saxo Taldearen kale kontzertua** 19:00etatik aurrera.

23 ostirala

- **Irakurketa-solasaldia Yolanda Arrietarekin** 11:00etan, Sutegi udal liburutegian.
- **"Erraustegiaren kutsaduraz azken berriak" ekitaldia** 18:00etan, Potxoenean.
- **Ziortzakoan San Tomas festa** 18:00etan Askatasuna plazan.

24 larunbata

- **Olentzerori harrera eta eguberrietako kantu-jirak** Ikus orrialde honetako albista.

Olentzerori harrera eta eguberrietako kantu-jirak

Abenduak 23, ostirala

Aginaga

- 18:00etan, Sekaña eta Mitxerkoneko bidegurutzetatik behera etorriko da Olentzero haurren eskutitzak jasotzera Eliza Zaharrera.
- **Antolatzailea:** Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.

Abenduak 24, larunbata

Aginaga

- 09:00 Kantu-jira etxez etxe elizatik abiatuta. 15:00ak alderako Aginaga Kaxkoan. **Antolatzailea:** Katekesi taldea.

Zubieta

- 16:00 Kantu eskea Artzabaleta baserritik. **Antolatzaileak:** herritar talde bat.



Ekitaldi ugari iragarrita daude egunotarako.

Santuenea

- **Olentzerorekin kantuan.** **Antolatzailea:** Santuenea elkarte.

Kalezar-Kaxkoa

- 17:00 Olentzeroren etorrera Kalezartik. 18:00ak inguruan Dema plazan. **Antolatzaileak:** herritarrak, eragileak, Usurbilgo Udala.

Datozenak

Gaztetxoen artean irakurzaletasuna sustatzeko zikloa liburutegian

Haur eta gaztetxoei zuzenduriko ekitaldi zikloa antolatu du Sutegi udal liburutegiak abendurako. Belaunaldi honetan ere irakurzaletasuna sustatzeko lehen aldiz, irakurketa-solasaldiak antolatu dituzte Yolanda Arrietarekin. Aurretik, herrikide dugun beste sortzaile baten eskutik eskulan tailerra.

Abenduak 20, asteartea

- 18:00 Irakurketa-solasaldia Yolanda Arrietarekin. LH 3-4 mailakoentzat. Juan Kruz Igerabideren "Euskal Herrietako ipuin gaiztoak" hartuko dituzte ahotan.

Abenduak 23, ostirala

- 11:00 Irakurketa-solasaldiak Yolanda Arrietarekin. LH 5-6 mailakoentzat. Yolanda Arrietaren "Nitaz ahaztu dira" liburua hartuko dute ahotan.

Oharra:

Izen-ematea aurrez liburutegian eta bertan liburuak eskuragarri. **Antolatzailea:** Sutegi udal liburutegia.

San Tomas ospakizuna DBHko gazteentzat

Ostiral honetan, abenduaren 23, ospatuko du Ziortza Gazte Elkarteak San Tomas eguna. Ziortzaren 2022ko azken kale ekintza izango da hau. Askatasuna plazan elkartuko dira arratsaldeko 18:00tan, jolas batzuk egin eta txistorra jateko. Ekintza DBHko gazte guztiei zuzenduta egongo da.



Askatasuna plazan batuko dira.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Kima
MASAJE LEKUA

•KIROL MASAJEA • MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ZALDIGAIN


ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

Ederra gure paisaia
baíta herrí giro alaia,
kanpotik dator etsaia.
Olentzerori zapatak garbí
ta san Silbestren mahatsak.
Kantuan ozen ahotsak
ta askatasun ametsak
aurrera beti urratsak!

Zubietako Herrí Batzarra



650
USURBIL
bizi

gabonetako

Otarra

Eraman herriko
produktuz
betetako otarra.
Ez galdu aukera!

**Zorte
on!!!**

Beste
mundu bat
posible da.

**100
otar**
zozketatuko
ditugu!

Sari banaketa frontoian izango da,
abenduaren 31ean

San Silvestre herri lasterketa
amaitu ondoren.



hurbilag^o
LURRI 2004-2014
2014-2018

Easkadi, anzolann, bien comin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO